

# ehbildu

Durango

II. zenbakia  
2024ko iraila

Durango  
bidegurutzean  
Tiempo de decidir



# Galdutako ikasturtea

## *Balance de un curso desaprovechado*

2023an Durangoko Udalean gobernu berria eratu zenetik urte bete igaro da, eta ikasturtearen balantzea pobrea da. Aukera garrantzitsuak pasatzen utzi dira etxebizitzaren edo kulturaren arloan, proiektu estrategikoetan ez da aurrera pausorik egon eta Udalak berak iaz hartutako konpromisoak ez ditu oraindik bete. Durangoko Udalak hainbat ikasgai ditu gainditu gabe, eta errekuperatu egin beharko ditu datorren ikasturtean.

Ha pasado un año desde que el nuevo gobierno municipal se constituyera en 2023. El balance de este primer año de legislatura es verdaderamente pobre. Se han dejado escapar oportunidades importantes en el ámbito de la vivienda o la cultura, no se ha avanzado en los proyectos estratégicos y el gobierno sigue sin cumplir las promesas hechas hasta ahora. El gobierno ha suspendido varias asignaturas y deberá recuperar otras en este curso que comienza.



### **Kultur Etxea bertan behera**

Udal gobernuak uko egin dio Correosen eraikin zaharrean kultur etxea eraikitzea proiektuari eta 1,5 milioi eurotako laguntza galtzen utzi du. Arrazoi teknikoak argudiatu zituen Alkateak proiektua bertan behera uzteko, baina alternatiba posibleak ezkutatuz. Arduragabekeri handiz eta alderdikariaz jokatu zuen, ez baitzuen EH Bilduren marka zeraman proiektua gauzatzerik nahi (EH Bilduk lortu zuen diru-laguntza milioduna Espainiako Kongresuan).

### *El edificio de Correos seguirá en ruinas*

El Gobierno Municipal ha aparcado el proyecto de construir la Casa de la Cultura renunciando a los 1,5 millones de subvención que iba a recibir del Gobierno central para reformar el antiguo edificio de Correos. La alcaldesa mencionó problemas técnicos, ocultando posibles alternativas viables y priorizando sus intereses políticos a las necesidades de Durango. El edificio de Correos seguirá en ruinas, y se esfuma la posibilidad de tener una Casa de la Cultura en Durango.

**No se puede seguir vendiendo suelo y construyendo vivienda para obtener rédito económico a corto plazo. Es el momento de innovar y crear un parque público de vivienda en alquiler.**



---

## Una oportunidad perdida en vivienda

---

*En el pleno de julio se debatió la ordenanza de Vivienda Tasada Municipal. Dicha ordenanza regula los ingresos máximos y mínimos de las personas que van a poder optar a estas viviendas, los requisitos de dichas personas, los tipos de promoción o el precio máximo de las viviendas. La ordenanza podría haber incluido cláusulas para que una parte de las viviendas construidas se destinara al alquiler, pero PNV, PSE y PP se negaron.*

*En los próximos años se prevé que se construyan 106 viviendas tasadas municipales. Desde EH Bildu planteamos que una parte de estas, concretamente las que se construirán en suelo de propiedad municipal, fueran destinadas en régimen de alquiler. EH Bildu incluyó enmiendas en el proceso de elaboración de la ordenanza, pero PNV, PSE y PP las rechazaron.*

*Yes que la oferta de vivienda en alquiler en Durango es casi inexistente, y lo poco que existe tiene un precio que supera los índices de recomendación del Gobierno Vasco. Por otra parte, según Etxebide las personas demandantes de vivienda en alquiler en Durango se han duplicado en el último año. Además, la demanda se ha extendido a todas las franjas de ingresos. Por otro lado, según la ordenanza aprobada por PNV, PSE y PP el precio de venta de estas viviendas podrá llegar hasta 280.000€. Es decir, estas viviendas tasadas podrán ser más caras que las viviendas de régimen libre.*

*Desde EH Bildu Durango creemos que es el momento de hacer propuestas para un nuevo modelo de políticas de vivienda. No se puede seguir dejando el derecho a la vivienda en manos del mercado, porque el mercado ha demostrado ser incapaz de responder a las necesidades de la gente.*

---

## Bete gabeko konpromisoak

---

Aurreko legegintzaldian hainbat konpromiso hartu zituen udalak, oraindik bete ez dituenak. **Trenaren trazatuak** urbanizatu gabe jarraitzen du eta **Txibitenako kirol instalazioen** proiektuak geldirik. Hainbat auzo zain daude 2023ko parte-hartze aurrekontuetan porposatutako **haur parkeak** eraiki edo estaltzeko, hala nola Ibaizabal, Otamotzena, Tabira, San Fausto edo San Inazio. **Madalena ermitako hobekuntzak** ere pendiente ditu gobernuak, aurrekontuetan adostu ondoren.



Batu Durangoko EH Bilduren Whatsapp kanalera.  
Bidali "ALTA" 633 409 452 zenbakira.

Únete al canal de Whatsapp de EH Bildu Durango.  
Envía "ALTA" al número 633 409 452.

# "Haurraren hezkuntzaren ardura ezin da soilik familia edo eskolarena izan"

MARIAM BILBATUA PEREZ (1950, GETXO) IRAKASLEA IZAN DA HUHEZIN (MONDRAGON UNIBERTSITATEA) HAINBAT URTEZ, ETA HIK HASI ALDIZKARIAN PARTE HARTU DU SORRERATIK. ALDIZKARIAK HEZKUNTZA LEGE BERRIAREN INGURUAN ARGITARATU DUEÑ MONOGRAFIKOAN GOBERNANTZA EREDUAREN ATALERA SARRERA IDATZI DU ORAIN.

## **Orain dela lau urte aldaketaren gobernuaren parte izan zinen, batez ere Hezkuntza gaiez arduratu izan zenuen. Zelan baloratzen duzu esperientzia?**

Esperientzia positiboa izan zen. Filosofia berri bat ekarri genuen Durangora, Herri Hezitzalearena. Durango ez zegoen haur eta gazteentzako prestatuta. Hainbat ekimen jarri genituen martxan; Hezkuntza formalean Eskola Kontseilua sortu genuen. Hezkuntza ez formalean Hezkuntza Foroa, Gau beltza edo Jolas Egunak bezalako proiektuak sortu genituen.

Oso pozik nago uste dudalako hezkuntza mailan beharrezkoa dela eragile askoren parte hartzea, eta lortu genuen. Familiek edo eskolek soilik ezin dute hezkuntzaren ardura osoa izan. Haur eta gazteen parte hartzeko aukerak zabaldu genituen, eta hori garrantzitsua da. Askotan esaten da etorkizuna direla, baina ahazten zaigu oraina ere badirela.

## **Oraingo gobernuak hainbat proiekturekin jarraitu du, baina "Eskolara bidea" ekimenak aurten ez du funtzionatu, adibidez.**

Eskolara bidea proiektua beste proiektu integral bat da, ez da soilik eskolara oinez edo bizikletan joatea. Bada ere elkar ezagutzea eta eragile ezberdinak bide horretan inplikatzea.

Proiektua martxan jartzeko diagnostiko bat egin zen gurasoen parte hartzearekin. Ikusi genuen haurren autonomian hutsune handia zegoela. Orain ikuspegi estrategiko falta egon da hori martxan jartzeko, eta presak nagusitu dira. Udalaren eta eragileen inplikazioa behar da horrelako proietkuek funtzionatzeko, ezin da lana kanpoko enpresa baten esku soilik utzi.

## **Zeintzuk izan behar dira hurrengo pausuak Durango hezitzaleago eta inklusiboago egiten jarritzeko?**



## **"Esaten da haurrak etorkizuna direla, baina ahazten zaigu oraina ere badirela"**

Onartu berri den Hezkuntza Legeak azpimarratzen du Eskola Kontseiluen beharra. Etorkizunean gobernantza eredu berri bat beharko da, Hezkuntza komunitateak, hezkuntza ez formalak eta udalek elkarrekin jardun beharko dute. Durango erreferentea izan daiteke alor honetan, eta erronka polita daukagu hor. Gobernuan geundenean alderdi guztien konpromisoa landu genuen, eta orain oposizioan era berean jardun beharko genuke EH Bildutik.

## **Zinegotzi izateari utzi ondoren ere lanean jarraitzen duzu.**

Gero eta jubilatuago nago, kar kar. Beti hezkuntzaren alorrean ibili naiz asko interesatzen zaidalako. Niretzat erronka handia dira gaur egun gobernantza ereduaren inguruan dauden eztabaidez eta jarraitzen dut ahal dudan neurrian ekarpena egiten.



# *Indarkeria matxista prebenitzeko eta biktimak artatzeko unitate berria martxan da*

**Ane  
Abanzabalegi  
Areitio**  
—  
**Durangoko  
Zinegotzia**

*Eragile  
feministak  
baitira  
Udalak egiten  
duenaren  
inguruan  
hausnartu,  
proposamenak  
garatu eta  
aldaketa  
feministak  
bultzatzen  
dituztenak*

DAFAk (Durangoko Autodefentsa Feminista Asanbladak) urteetan egindako eskaerari eta Durangok dituen gabeziei erantzuteko lanean jarri zen EH Bildu aurreko legegintzaldian. Hainbat eragile ezberdinekin eginiko lanketetan argi ikusi zen udal teknikari baten beharra zegoela guztiari aurre egin ahal izateko. Hala, gobernuan ginela, udaletik unitate berria sortzearen aldeko prozesua martxan jarri genuen. Orain, errealtitate bihurtu da.

Eraso matxista jasan duenak behar bezalako arreta jasotzea da unitate berriaren helburua, izan ere, hau ez da edonolako kontua. Hainbat aldiz eta hainbat lekutan kontatu behar izaten du biktimak bizitakoa edo gertatutakoa; unitate honekin, egin beharreko bide osorako arreta profesionala egongo da. Halaber, Udalak, Amankomunazgoak edo bestelako erakundeek eman ezin dituzten baliabideak biktimaren eskura jarriko ditu.

Horrez gain, lanketa handia egin behar da prebentzioan; horretan, beharrezkoa da eskolan, kirolean, kulturan eta bestelako arloetan ere eragitea aurrerapausuak ematen joateko, horri ere erreparatuko dio zerbitzuak.

Indarkeria matxistari aurre egiteko tresnak izatea garrantzitsua deritzogu, hala ibili gara proiektu honekin burubelarri lanean. Orain, oposiziok jarraipen zorrotza egingo diogu guk hasitako proiektu hau garatu dadin.

Beti, talde feministekin egindako elkarlanaren garrantzia azpimarratuz. Beraiek baitira Udalak egiten duenaren inguruan hausnartu, proposamenak garatu eta aldaketa feministak bultzatzen dituztenak.

# Eguzkitzagoiena

## Pelotazo urbanistiko berri bat

Eguzkitzagoienako zelaietan 342 luxuzko etxebitzitza eraikitze proiektua aktibatu dute. Eraikuntza burbuilaren urteetan diseinatu zen Tabiratik gora luxuzko urbanizazio bat eraikitze plana, orain dela ia 20 urte, baina ez da gaur arte garatu. Orain berriro hasi dira gauzak mugitzen, proiektuaren sustatzaileek ingurumen txostenetan aurkeztu baitute, Eusko Jaurlaritzaren onespenarekin.



• Eguzkitzagoienako depuradora

18 pisutako dorreei ezetz esan ondoren, hirigintza pelotazo berri baten aurrean aurkitzen gara. Mendi ingurunean dauden  $42.198m^2$  bideratu nahi dira luxuzko etxebitzitzak eraikitzeo. Garapen honek, erdigunetik 2km baino gehiagora kokatuko litzatekeenak, ez die herritarren egungo beharrei erantzuten. Gaur egungo zerbitzuak okertuta lituzke, etxebitzitzaren merkatua gehiago tentsionatuko luke eta inpkatu negatibo handia izango luke Tabirako trafikoan. Zergatik ez du Udal Gobernuak Hirigintza Plan Orokorra martxan jarri eta herritarren parte hartzearekin proiekturik egokiena erabakitzetan?

### Berdegune gutxiago

Durangok berdegune gehiago behar ditu biztanleen ongizaterako. Eusko Jaurlaritzak  $5m^2$  berdegune pertsonako gomendatzten ditu, eta OMSeik  $9m^2$  pertsonako. Baino Durangok  $4,3m^2$  dauzka, estandar guztien azpitik.

Vuelven a activar el proyecto para construir 342 viviendas de lujo en los campos de Eguzkitzagoiena. El plan para realizar un pelotazo urbanístico en la zona alta de Tabira se diseñó durante la burbuja inmobiliaria, hace casi 20 años, pero no se ha desarrollado hasta ahora. Ahora, los promotores han realizado el informe medioambiental con la intención de retomar el proyecto.




• Abadiñorako bidea


Después de que Durango rechazara las torres de 18 pisos en el centro del municipio, se quieren destinar  $42.198m^2$  de monte para viviendas de lujo, en un nuevo intento de desarrollo sin freno comprometiendo aún más nuestro entorno natural. Este desarrollo, ubicado a más de 2km del centro, no responde a las necesidades reales del municipio. Deterioraría los servicios actuales, tensionaría aún más el mercado de la vivienda y tendría un gran impacto negativo en Tabira. ¿Por qué no se inicia el Plan General de Ordenación Urbana para que podamos analizar y decidir entre todos si este desarrollo tiene sentido?

### Menos zonas verdes

Durango necesita más espacios verdes, no menos. El Gobierno Vasco recomienda tener  $5m^2$  verdes por persona, y la OMS  $9m^2$ . Pero Durango, con una población de 30.127 y  $130.495m^2$  de espacios verdes, tiene un ratio de  $4,3m^2$ .



• Mapa de ruido de Durango



## La calidad acústica en Tabira

Según un informe de Tecnalia, Durango actualmente dispone de 10 zonas acústicas tranquilas donde los niveles del ruido son aceptables. El 50% de estas zonas se concentra alrededor de Tabira, concretamente en los parques de Zuhatzola ( $41.000m^2$ ), Zumar parkea ( $4.105m^2$ ), Intxaurreondo ( $4.943m^2$ ) y Tabira parkea ( $9.149m^2$ ). A día de hoy Tabira es la zona más tranquila de Durango pero con esta urbanización el tráfico por Tabira se duplicaría, y estas zonas perderían su condición de tranquilidad acústica.

## Plan orokor berri baten beharra

Durangoko EH Bildutik, 2/2006 Legearen 85. artikuluari jarraiki, Eguzkitzagoienaren hirigintza garapena bertan behera uztea proposatu dugu, eta garapen hori birpentsatzeko Hirigintza Antolamenduko Plan Orokor (HAPO) berria martxan jartzea. 20 urte baino gehiago igaro dira azken HAPOtik. Aurreko legegintzaldian plan berriarekin hasi ginen, eta hasierako onespenaren zain geratu zen. Orain, EAJ-PSEren gobernuak badirudi ez duela planarekin jarraitu nahi. Durangorentzat hazkunde urbanistiko txikiagoko eredu bat proposatzen dugu, berdeguneak eta inguru naturalak errespetatuz eta zerbitzuak eta pertsonen bizi kalitatea lehenetsiz.

## Otro modelo es posible

Desde EH Bildu Durango, proponemos suspender el desarrollo urbanístico de Eguzkitzagoien en virtud del artículo 85 de la ley 2/2006, y promover de manera decidida la aprobación inicial del Plan General (PGOU) para repensar dicho desarrollo. Han pasado más de 20 años desde el último PGOU. La legislatura pasada iniciamos los trámites para un nuevo PGOU, pero ahora PNV y PSE han bloqueado la renovación. Proponemos un modelo de menor crecimiento urbanístico, respetando las zonas verdes y los entornos naturales, priorizando los servicios y la mejora de la calidad de vida para todas las personas.



• Plan urbanistikoaren lursaila

# Zorionak Aramotz!

*Egindako  
lanaren  
fruituak*



# Auzo bilerak

## Reuniones de barrio



**Madalena, Muruetatorre, Landako, Tabira, Alde zaharra, Antso Estegiz eta Juan Itziarren egin ditugu bilerak**

EH Bildutik garrantzia berezia eman diegu beti auzoei, ezinbestekoak baitira durangarron arteko elkarbizitza sustatzeko, herritarren parte hartzea bultzatzeko, eta finean, Durango bizi bat lortzeko. Aurreko legealdian Udal Gobernutik auzogintzaren susperraldia jarri genuen erdigunean. Auzoak berrurbanizatu genituen eta auzoguneak sortu. Antso Estegiz edo Aramotzen adibidea argia da.

Baina orain, EAJ eta PSEk osatutako gobernuak filosofia honekin hautsi nahi du. Kapitanena auzo etxearen bideragarritasuna kolokan jarri zuten, baina San Faustoko auzokideen topatu ziren. Bestetik, Murueta Baserria auzo etxea izateko eraberritu genuen aurreko legealdian, baina atzera bota dute proiektua orain. Argi esan zuen oraingo Alkateak “auzoguneak ez dira gure proiektua”.

Auzogintzaren aurkako jarrera honen aurrean EH Bildu ez da geldirik geratuko. Auzoz-azoo bagabiz auzotarren kezkak zein ideiak jasotzen, auzo bakotzarentzat ditugun proposamenak aurkezten.



**En las próximas semanas haremos las reuniones en los barrios de Aramotz, San Roke y San Fausto.**

*Desde EH Bildu siempre hemos dado especial importancia a la autonomía de los barrios, son fundamentales para promover la convivencia, fortalecer la participación ciudadana y, en resumen, llenar nuestro pueblo de vitalidad. En el período legislativo anterior pusimos en el centro del Gobierno Municipal la reactivación del desarrollo barrial. Antso Estegiz y Aramotz son ejemplo de ello, con la reurbanización y los nuevos auzoguneak.*

*Pero ahora el Gobierno PNV-PSE quiere romper con esta filosofía. Cuestionaron la viabilidad del centro cívico Kapitanena, pero se encontraron con un barrio dispuesto a pelear. El Baserri Murueta fue reformado por el anterior Gobierno Municipal para emplearse como centro-cívico, pero el actual Gobierno ha rechazado el carácter vecinal que debía tener el edificio. Ya lo dijo la actual alcaldesa: "no es nuestro proyecto".*

*EH Bildu no se quedará de brazos cruzados ante esta oposición a la autonomía vecinal. Seguimos barrio a barrio haciendo reuniones, recogiendo propuestas y materializando las reivindicaciones vecinales.*

# El IBI tiene que ser más justo y progresivo

EL PNV HA PROPUESTO UNA SUBIDA LINEAL DEL 14% EN EL IBI PARA TODO TIPO DE VIVIENDAS, SEAN CHALETS, PISOS O VPO. TAMBIÉN PROPONE UN 8% PARA TODAS LAS EMPRESAS.

Comienza el curso y el gobierno ya ha hecho su propuesta para las ordenanzas fiscales, como le corresponde. Mediante las ordenanzas fiscales se regulan los impuestos municipales, las tasas y los precios públicos y de esa forma los ayuntamientos logran ingresos para luego poder ofrecer servicios públicos, aunque la mayor parte de los ingresos provenga de los fondos de la diputación.

Analizada la propuesta de Ordenanzas fiscales para 2025 presentada por el equipo de gobierno, entendemos que haya que subir el IBI, pero no así. Por eso, hemos propuesto una subida más moderada y progresiva, para que paguen más quienes más tienen. Un 4% para las viviendas con un valor catastral inferior a 140.000€ (equivalente a 350.000€ valor de mercado) y un 8% para las viviendas que sobrepasen ese valor.

*La fiscalidad es otra herramienta importante para lograr la igualdad y la justicia social.*

## Comercio e industria

Así mismo, proponemos un incremento del 2,7% (en vez del 8%) para el comercio ordinario, con un valor catastral inferior a 135.000€ y un 4% para el resto. En industria proponemos un incremento del 3% para las industrias cuyo valor catastral sea inferior a 230.000€ y un 5,5% para el resto.

## La ponencia de valores

La Ponencia de Valores es la herramienta que usa el departamento de Catastro de la Diputación de Bizkaia para fijar el valor de los diferentes tipos de bienes inmuebles. En base

a ese valor se aplica un tipo diferencial para obtener la cuota de IBI a cobrar.

Una vez más, el PNV de Durango ha perdido la oportunidad de compartir con la oposición la ponencia de valores realizada por la diputación. No han dado opción a analizar ni realizar aportaciones en el tiempo de alegaciones.

*Seguiremos teniendo una ponencia de valores que no se corresponde con la realidad de Durango*

Por ejemplo, Muruetatorre (1.151,78€/m<sup>2</sup>) o Ibaizabal (1.213,12€/m<sup>2</sup>) pasan a estar en el top 5 de barrios más caros por encima de Ezkurdi (946€/m<sup>2</sup>). A las calles de chalets Galtzareta (679,74€/m<sup>2</sup>) o San Roke (679,74€/m<sup>2</sup>), se les baja un 25% el valor. Quedando muy por debajo del valor medio de Durango (809,54€/m<sup>2</sup>).

## Bonificaciones para familias monomarentales

Además, hemos presentado una enmienda para bonificar el 50% de la cuota en la tasa de basuras, el abono anual familiar de la piscina o la matrícula en Musika Eskola, a aquellas familias cuyos ingresos sean inferiores a 3,5 veces el SMI y cumplan con los requisitos de ser familia monomarental/monoparental.

## El impacto de género

Por último, y fuera de las enmiendas, solicitaremos se realice un análisis para integrar la perspectiva de género en las ordenanzas fiscales. Es necesario analizar qué impacto tienen en mujeres y hombres las tarifas y bonificaciones establecidas, de cara a identificar las desigualdades que pudieran existir.

**F**

**Pistola hau okupatutako  
Zisjordanian kolono israeldarrei  
transferitutako arma bat da.**

**2.426 pistola kabitzen dira  
orrialde honetan.**

150.000 pistola eta arma baino  
gehiago transferitu zaizkie  
kolono israeldarrei 2023ko  
urriaren 7az gerotzik.

Denak erakusteko 61 orrialde  
beharko liratezke.

Gazara importatutako misilak  
jaurtitzen dituzten bitartean  
Zisjordanian importatutako  
pistolekin hiltzen dituzte  
kolonoek palestinarrak

**ISRAELGO ESTATUAREKIN  
HARREMANAK ETEN!**



**Israelgo pistolen  
%98 importatuak  
dira.**

Israelgo arma  
importatuen %99  
EEBBetatik (%69)  
eta Europatik (%30)  
doaz.

Azaroa

22

18:00 San Agustin

# Iparroratza Durangorentzat

Zelako Durango eraiki nahi dugu? Zelan imaginatzen dugu gure etorkizuneko Durango? Zein proiektu behar du Durangok? Etengabe gure buruari egiten dizkiogun galderak dira.

Aro aldaketa batean murgilduta gaude, eta, beraz, suertatzen ari diren erronka berriei aurre egiteko proiektu politiko argi bat behar da. Printzipio ezkertiar, berdinazale eta demokratikoetan oinarrituta, gure Herri Eredua marratzu dugu. Etorkizuneko **Durango bizigarria, bizia eta denontzat** izan dadin.

**Bizigarria** izan dadin pertsonak erdigunean jartzen dituen hirigintza garatu behar dugu, osasuna eta jasangarritasuna gure politiken lehen lerroan kokatuz. Durango **bizia** diogunean pertsonen mugimenduaz hitz egiten dugu, kulturaren sorkuntzaz eta parte-hartzeaz, gure ondasun eta zerbitzuen ekoizpen eta kudeaketaz, eta komunitatearen heziketa formalaz zein ez formalaz. Gure herria **guztiona** izango da, kolektibo guztiekin lekua daukatenean, bizitza duinak garatu ahal izateko. Guk baldintzak sortu nahi ditugu hori errealtitate bihurtzeko.

Idea eta proposamen guztiak dokumentu batean garatu ditugu azken hilabeteotan, eta orain, herriari aurkeztu eta eztabaidea publikoa elikatzea dugu helburu. **“Iparroratza Durangorentzat”** eztabaidearen nondik norakoak ezagutu nahi baditzu, hurbildu **azaroaren 22an, 18:00etan San Agustin Kulturgunean** egingo dugun herri aurkezpenera.

*Asistimos a un cambio de época y para hacer frente a los retos que vienen hacen falta proyectos nuevos y sólidos.*

*En noviembre, presentaremos una propuesta para Durango y la compartiremos con toda la ciudadanía.*



**ehbildu**

- /EH Bildu Durango
- @EHBilduDurango
- @ehbildudurango
- durango.ehbildu.eus